

BEROJAN PROIEKTUAREN FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Berojan proiektuak funtziona dezan, hainbat funtsezko baliabide behar dira, balio-proposamena garatu, bezeroengana iritsi eta diru-sarrerak sortzeko. Alde batetik, baliabide fisikoak dira salmenta-makinak beraiek, janaria prestatzeko eta berotzeko sistema integratuak, ukipen-pantaila, ordainketa-sistemak (txartela eta efektiboa) eta makinak kokatzeko espazio fisikoak. Bestetik, baliabide intelektualak dira Berojan marka, makinaren funtzionamenduari eta erabiltzaile-esperientziari lotutako diseinua, eta proiektuaren antolaketa-eta kudeaketa-ezagutza. Giza baliabideei dagokienez, taldeko kideen lana eta gaitasunak funtsezkoak dira: proiektuaren kudeaketa, hornitzaileekin harremanak, makinaren gainbegiratzea eta bezeroarentzako arreta. Azkenik, finantza-baliabideak beharrezkoak dira hasierako inbertsioa egiteko, hau da, makinak erosi eta instalatzeko, produktuak hornitzeko eta mantentze-kostuei aurre egiteko. Baliabide ukigarri eta ukiezin horien guztien bidez, Berojanek bere negozio-eredua modu eraginkorrean martxan jarri eta mantendu ahal izango du.